WoodCircus-en 2040rako Liburu Zuria

Europako zur industriak hazkunde jasangarriaren motore berdea dira.



Ekonomia deskarbonizatzeko, norabide aldaketa handia egin behar da, eta zirkularrak eta karbonoan neutralak izango diren ekoizpen prozesu, produktu, eraikuntza eta material erabileretara jo. Garbi esanda, hori ezingo da lortu ez badira gehiago, zentzuz eta modu jasangarrian erabiltzen material naturalak, hala nola zura. **Europako zur industriak aitzindariak dira zirkulartasunean eta klimarentzat onuragarriak diren irtenbideetan.** Zurean oinarritutako balio katean, maila guztietan erabiltzen dira jardunbide zirkularrak. Horretarako hainbat bitarteko daude: prozesatzea eta materialaren efizientzia, diseinu zirkularra, materialaren erabilera teilakatua eta berrerabili eta birziklatzeko estrategia ongi ezarriak.

Zur industrien indarrak gorabehera, Europako eraikuntza sektoreak 70,5 milioi tona egur hondakin sortzen ditu urtean gutxi gorabehera[1], eta gaur-gaurkoz herena-edo besterik ez da berrerabiltzen edo birziklatzen. Zur industriak bioekonomia zirkularrean guztiz txertatzeko, aplikazio berritzaile eta burutsuetara bideratu daitezke eraikuntzako hondakinak eta zuraren beste erabilera osagarriak. Arau esparru berri bat ezarri beharko da zirkulartasuneranzko trantsizioa sustatzeko, eta horren barruan ezarritako baldintza, araudi, inbertsio eta pizgarriek negozio eta operazioetarako jardunbide praktikoak, lankidetzak eta elkarlanean sortutako ekosistemak sustatu beharko dituzte.

1 WRING: Wood working industry recycling. EIP Raw Materials Commitment, 2016. https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/eip-raw-materials/en/content/wood-working-industry-recycling

WoodCircus proiektuaren 2040rako Liburu Zuriak zur industriek Europako hazkunde jasangarrian bete dezaketen eginkizuna defendatzen du.

Zur industriak moldagarriak dira eta hazteko prest daude. Liburu Zuriak proposatzen du ekintza zehatzak egitea, interesdun guztiak barne harturik, zur industriek eta Europako ekonomia osoak bizkorrago egin dezaten trantsizioa deskarbonizaziorantz, zirkulartasunerantz, inklusibotasunerantz eta arrakasta jasangarrirantz.

WoodCircus-en maximak

WoodCircus-en sei maximak eta politika gomendioak dira 2040rako Liburu Zuriaren oinarria. Europako zur industrien trantsizio zirkularra defendatzen dute, eta Europako lau makroeskualdetatik bildutako informazioan oinarritzen dira: Europako Iparraldea eta Baltikoa, Mendebalde-Erdialdea, Hegoalde-Mediterraneoa eta Ekialde-Erdialdea. Maxima bakoitzean bildutako ikuspegia eta gomendioak ezartzean, kontuan hartu beharko dira makroeskualde bakoitzeko baldintza, indar eta potentzial espezifikoak, eta tokiko, estatuko zein Europa mailako interesdunen artean lankidetza arina izan dadila eskatu.

Zura da baliabide natural garrantzitsuena; gure eguneroko bizitzetan eta bioekonomia zirkularrean nagusia. Zurak erabilera zabala du eraikuntzan, altzarigintzan, enbalajeetan, garraioan, ehungintzan, erregaietan, produktu kimiko finetan, industria farmazeutikoan eta beste hainbat aplikaziotan. Europako Itun Berdeak, Fit-for-55 programak, Ekonomia Zirkularreko Ekintza Plan Berriak, Biodibertsitatearen Estrategiak, Basogintzako Estrategiak, Europako Bauhaus Berria Ekimenak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030erako Helburuek ezarritako xedeak gauzatzeko, zuraren erabilera zentzuduna izango da Europako zur industrien lehiakortasuna eta gizartearen ongizatea sustatzeko indar eragile nagusia. madereras europeas así como del bienestar de la sociedad.



1
Lehenengo maxima

Egurrarekin eraikitzea eta bizitzea da Europaren aukera hoberenetako bat, munduan hazkunde jasangarri, inklusibo eta lehiakorreko lider bihurtzeko.

Premiazkoa da Europako ekonomia deskarbonizatzea eta COVID ostean susperraldi berde baterantz bideratzea, eta horretarako eraldatu egin behar da eraikuntza sektorea, zaharberritzeko lanetan, eraikin berrietan, azpiegituretan eta ingurune eraiki osoan zuraren erabilera maximizatzeko. Zur industriek aukera paregabea eskaintzen dute Europako eraikinetarako ikuspegi berri bat garatzeko: erakargarria, inklusiboa, eskuragarria, jasangarria eta klimarentzat onuragarria.

Gomendioa

Renovation Wave eta Europako Bauhaus Berria estrategiek gidatuko gaituzte karbonoan neutrala den ekonomia bateranzko trantsizioan, eta naturan oinarritutako materialen erabilera lehenetsi beharko lukete. Trantsizio hori bizkortze aldera, karbonoa biltegiratzea eta zuraren eta zurean oinarritutako produktuen balioa ordezkatzea onartu, eskatu eta saritu liteke, adibidez, erosketa eta kontratazio publiko berdean, estandarizazioan, produktuen ingurumen aztarnan, ziurtapenetan eta erregelamendu berri eta eguneratuetan.

2
Bigarren maxima

Zur industriak oso efizienteak dira jadanik. Zuraren sektorea oso eraginkorra denez baliabideen eta energiaren erabileran, oso hondakin gutxi sortzen ditu bizitza ziklo osoan, edo bat ere ez. Zurgintzatik eratorritako produktu sekundarioen ia-ia % 100 erabil daiteke ekoizpenerako edo energia bihurtzeko. Zurgintzako balio kateen efizientzia baliabideen erabilera eraginkorretik harago ere joan daiteke: adibidez, aurrefabrikazioaren, materialaren erabilera teilakatuaren eta ekodiseinuaren bitartez, laguntza eta zerbitzu garapen espezifikoaz. Banako konpainien barruan nahiz produktu sekundarioetarako merkatuen bitartez lor daiteke hori. Ongi diseinatutako produktu berrerabilgarri, berreskuragarri edo birziklagarriek energia eta karbono efizientzia luzatzen dute, eta hortaz, ekoizpenaren, erabileraren, berrerabileraren eta birziklapenaren ingurumen-inpaktua murrizten, inoiz ez bezala.

Gomendioa

Era berean, politikek eta araudi osagarriek baliabideen efizientzia maximizatzeko aukera bideragarriak indartu beharko lituzkete: besteak beste, berrerabiltzea, birziklatzea zein berreskuratzea, eta zerbitzuetan oinarritutako eraikuntza sistemak, hala nola aurrefabrikazioa. Horrela, berrikuntza eta negozio eredu berriak sustatuko dira, sektorean hazteko bide berriak irekiko dira, eta jasangarritasuna handituko da materialen zikloei balioa erantsiz eta langileen segurtasuna handituz. Ekintza horiek garapen eta inbertsio programa asmo handikoen bitartez sustatu behar dira, Europa, estatu eta eskualde mailan.

3
Hirugarren maxima

Europako zur industriek balioa eransten dute negozioetarako jardunbide, eredu eta kontzeptu zirkularren bitartez. Balio kate eta ekosistema berriak sortzen badira zuraren eta zurean oinarritutako produktuen erabilera efizientea lortzeko eta, hala, elkarrekiko sorkuntza, negozio kontzeptu berriak eta negozio eredu partekatuak garatzen dituzten egungo balio kateak osatzeko, enplegu berriak sortu, hazkundea sustatu eta lehiakortasuna handituko da Europako zur industria osoan zehar.

Gomendioa

Ekonomia zirkularraren ahalmen osoa askatzeko, horren aldeko baldintza, araudi, inbertsio eta pizgarriak bilduko dituen arau esparru bat garatu beharko lukete Europa, estatu nahiz tokiko mailako aktore politikoek. Tresna horien bitartez, egurrezko biomasa berrerabiltzea eta birziklatzea sustatu beharko litzateke, baita eraikuntza eta eraispen guneetan zur hondakinen bilketa eta sailkapena areagotu eta kontsumitzaile osteko egur bilketa hobetu ere. Era berean, ekintza horiek ekintzailetza eta inbertsioak sustatu beharko lituzkete, enpresa, negozio eredu eta start-up berrietan nahiz arrisku kapitalean, mugaz eta nazioz gaindiko lankidetza, ekosistema industrialak eta sare lana ere barne harturik. Diziplina anitzeko lankidetza lehenetsi beharko litzateke, beste alderdi interesdun batzuen abantailak eta jakintzak zur industrietara ekartzeko. Europako enpresen taxonomian identitate berezia garatzen bada zur industrientzat, sektorea modu independentean garatu ahal izango da eta klimari dagokionez eskaintzen dituen konponbide onuragarriak indartu ahal izango ditu.

4

Laugarren maxima

Zur industria hazkor eta dinamikoak gaitasun eta sormen handiko langileak erakarriko ditu, eta etengabe eboluzionatuko du, bizi arteko ikaskuntza ahalbidetuz maila guztietan. Modernizazioari eta garatzen ari den ekonomia zirkularrari esker, hainbat aukera sortu dira zur industriaren barruan, ezagutza bankua mantenduko eta handituko duten enplegu profil eta lan ibilbideentzat. Balio kateetako maila guztietan ikasle, langile eta ekintzaile orori prestakuntza edo bizi arteko ikaskuntza eskaintzen bazaio zurgintzak etorkizun jasangarria sortzeko duen balioari buruz, eta horrekin batera trebezia tekniko eta sozialak irakasten badira, balioa erantsiko zaie jakintza eta trebezia tradizionalei, ekintzailetza erakarriko da, eta landagune eta hirietako garapena konektatuko da.

Gomendioa

Hezkuntza eta prestakuntza programa publiko eta industrialak eguneratu egin beharko lirateke, gaitasun eta sormen handiko enplegatu eta ekintzaileak erakartzeko. Ikaskuntza eta prestakuntza programa berriak sortu beharko lirateke industriako eta enpresetako eragileekin batera, esanguratsuak direla ziurtatzeko. Horrez gain, zuraren eta zurean oinarritutako produktuen erabilera jasangarria sustatzeko sistema kofinantzatuek zuraren sektorearen irudia hobetuko dute, eta zuraren erabilera gehitu, enplegatu potentzialak erakarri, eta ekintzailetza areagotu. Horrela, zuraren sektoreko enplegatuek ekarpen berariazko eta garrantzitsua egin dezakete Europako Itun Berdean eta beste garapen estrategia jasangarri batzuetan ezarritako mugarriak lortzeko, eta, ondorioz, egungo larrialdi klimatiko globalari aurre egiteko esku hartu.

5

Bosgarren maxima

Diziplina anitzeko ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa industriala funtsezkoak dira karbono neutraltasuneko ekonomia bateranzko trantsizioa egiteko. Beharrak ulertu, jakintza elikatu, garapena indartu eta konponbide berriak martxan jartzeko, laguntza oinarri ongi egituratua eduki behar da ikertzaileentzat, enpresentzat eta industriarentzat. Europako ekonomia deskarbonizatzeko, Itun Berdeak asmo duen bezala, ezinbestekoa da hurrengo belaunaldiko konponbideak elkarrekin sortzea, eta horretarako zur industriako interesdunen talde zabala konektatu behar da.

Gomendioa

Ikerketa eta berrikuntzako ekintza plan bat garatzea, karbono neutraltasunez bizitzea eta zurarekin eraikitzea sustatzeko, eta finantzaketa publikoa duten programetan ezartzea plan hori, tokian-tokian, estatuetan eta Europa mailan. Zurean oinarritutako konponbideen garapena babestea Europako planetan: Europa Horizontea, Europako Bauhaus Berria, Renovation Wave eta Fit-for-55. Erraztasunak ematea zuraren industriaren, eraikuntza sektorearen eta alderdi interesdun publiko nahiz pribatuen arteko lankidetza ekimen sorta bat sortzeko.

6

Seigarren maxima

Zuraren industriak klimarentzat onuragarriak diren aukerak eskaintzen ditu bioekonomia zirkularraren kontzeptuan sar daitezkeen produktu ia guztientzat. Sektoreak hainbat aplikaziotarako produktuak sortzen ditu (eraikuntza, altzarigintza, enbalajeak, garraioa, aisialdia, ongizatea, eta beste asko), berrerabiltzeko edo birziklatzeko prest dauden materialak erabiliz, zeharo efizienteki. Sektoreak **balioa eransten** du materialaren **bizitza ziklo** bakoitzeko ekoizpen fase bakoitzean. Bildutako egur produktuen kopurua handitzen bada, karbono biltegiratzea luzatuko da, eta, hortaz, funtsezko ekarpena egingo da klima aldaketa arintzeko.

Gomendioa

Gomendioa: Itun Berdeak ezarritako karbono neutraltasuneko helburuak lortzeko, ezartzen diren politikek, pizgarriek eta araudiek zuraren eta zurean oinarritutako produktuen erabilera onartu, babestu eta sustatu beharko lukete Europako ekonomia deskarbonizatzeko. Beharrezkoa da lankidetza publiko-pribatua izatea tokiko mailan, estatu mailan eta Europar Batasunean, konponbide bideragarri eta onargarriak aurkitu eta, hartara, hainbat planetan finkatutako helburuak gauzatzeko: besteak beste, Europako Itun Berdea, Fit-for-55, Biodibertsitatearen Estrategia, Basogintzako Estrategia, Ekonomia Zirkularreko Ekintza Plan Berria, Europako Bauhaus Berria ekimena eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak.



Aska dezagun hazkunde berdearen eta karbono neutraltasunaren potentziala elkarrekin.

Bioekonomia zirkularreranzko trantsizioak alderdi interesdun guztien konpromiso irmoa eskatzen du. Sei maxima horiekin, WoodCircus-ek industriako, araugintzako eta komunitateko lider europar guztiei dei egiten die, aldaketa eraginkorra eraman dezaten aurrera, eta politika eta jardunbide sendoak ezar ditzaten, zur industriek hazkunde berdea eta karbono neutraltasuna lortzeko bete dezaketen rol garrantzitsuaren lagungarri.

WoodCircus-en helburu nagusia da zurean oinarritutako balio kateak sustatzea, Europako bioekonomia zirkularraren funtsezko alderdi gisa. Helburu hori lortzeko, zurean oinarritutako balio kateen efizientzia ikertu, ebaluatu eta nabarmentzen du, zur industrietan nahiz eraikuntza sektorean. Jarduera hauek hartzen ditu barnean: zuraren mobilizazioa eta lehen eraldaketa, eraikuntza jarduerak, ekoizpenaren ondoriozko produktu sekundarioak, berrerabilera eta birziklapena. Gizarte jasangarrien garapenean lagunduz, zur industrien trantsizioak eta babesak enpleguak gehituko ditu eta Europako herritarren ongizatea sustatuko du.

Editors:
Burnard, Michael · Kleinschmit von Lengefeld, Andreas Nikolaus · Ritschkoff, Anne-Christine · Simola, Kaisa

Contributors:
Azkarate Zabalo, Oskar · Elvnert, Johan · Garcia Jaca, Javier · Kies, Uwe · Kuhl, Alexis · Merivuori, Kai Pajula, Tiina · Partanen, Asta · Tosi, Giovanni · Verkasalo, Erkki · Wijnendaele, Kris

Underpinning the vital role of the forest-based sector in the Circular Bio-Economy

This project has received funding from the European Union's Horizon 2020 research and innovation programme under grant agreement no. 820892.

Published 1st December 2021
Publisher: WoodCircus project, 2021
Website: https://woodcircus.eu/
DOI: 10.32040/WOODCIRCUS.WHITEPAPER.2040-eu

Design & illustration Jani Ikonen